Horregatik, diputatu nagusi naizen aldetik dagozkidan ahalmenak baliatuz,

XEDATU DUT

LEHENENGOA.- Pertsona hauek Aholku Batzordeko kide kargutik kentzea, arautegi organikoaren 8.2.a eta 8.2.b artikuluetan jasotako egoerak biltzen direlako:

Ane Miren Arrieta Navaridas
Joaquín Erviti Ortiz
Carlos Domínguez de Pablo.
Soledad Pérez de la Peña

BIGARRENA.- Ondorengo pertsonak foru administrazioaren Aholku Batzordeko kide izendatzea:

Mª Jesús Ogueta Lana
Joaquín Erviti Ortiz
Carlos Domínguez de Pablo.
Mercedes Ibarrola Ojembarrena

HIRUGARRENA.- Mª Belén Fernández Orbiso Aholku Batzordeko idazkari izendatzea.

LAUGARRENA.- Foru dekretu honek onartu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko irailaren 28a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ. Lege Araubidearen zuzendaria, JESÚS MARÍA ELORZA FERNÁNDEZ.

En su virtud, en uso de las facultades que me corresponde como Diputado General,

DISPONGO

PRIMERO.- Cesar como Vocales de la Comisión Consultiva, por la concurrencia de los supuestos previstos en el artículo 8.2. a y b, de su Reglamento orgánico, a:

Ane Miren Arrieta Navaridas
Joaquín Erviti Ortiz
Carlos Domínguez de Pablo.
Soledad Pérez de la Peña

SEGUNDO.- Designar como Vocales de la Comisión Consultiva de la Administración Foral a las personas que a continuación se expresan:

Mª Jesús Ogueta Lana
Joaquín Erviti Ortiz
Carlos Domínguez De Pablo.
Mercedes Ibarrola Ojembarrena

TERCERO.- Designar Secretaria de la Comisión Consultiva a Mª Belén Fernández Orbiso

CUARTO.- Este Decreto Foral entrará en vigor el día de su adopción, sin perjuicio de su publicación en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, a 28 de setiembre de 2009.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ. Director de Régimen Jurídico.– JESÚS MARÍA ELORZA FERNÁNDEZ.

*Foru Aginduak*

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**6831**

**537/2009 FORU AGINDUA, irailaren 23koa, behin betiko onartzen duena Erribera Beitiko udal planeamenduaren arau subsidiarioen 8. aldaketari buruzko espedientea.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Apirilaren 7ko 185/2009 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onartu zen Erribera Beitiko arau subsidiarioen seigarren aldaketa. Aldaketa horren bidez, Rivabellosako zona berde bat kirol ekipoetarako zona bihurtzen zen.

Aldaketa hori egin ahal izateko, Rivabellosako R02/UE-1 egikaritze unitateko 2.887 metro koadroren sailkapena aldatzeko espedientea izapidetu behar zen. Azalera horrek, egun indarrean dauden arauetan, oinezkoentzako ibilbide/espaloi kalifikazioa du eta, aurrerantzean, espazio libreen toki sistemaren kalifikazioa izango du.

Bigarrena.- Erribera Beitiko Udalak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2009ko ekainaren 22an sarrera izan zuen idazki bidez, arau subsidiarioen aldaketa espedientea –aurreko puntuan aipatutako eremuari dagokiona– igorri zuen, behin betiko onar zezan.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 56. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, zehaztapen xehatuak dira, besteak beste, toki sistemen definizioak; beraz, zehaztapen horiei eragiten dieten aldaketak antolamendu xehatuko planetan ezarritako prozedura bidez izapidetuko dira.

Udalak planteatzen duen kalifikazio aldaketa antolamendu xehatuari dagokion aldaketa denez gero, abiarazitako prozedura egoki jotzen da.

Bigarrena.- Igorritako agiriak aztertuta, indarrean dagoen legedian agindutako izapide guztiak bete direla egiaztatu da. Horrez gain,

*Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**6831**

**ORDEN FORAL 537/2009, de 23 de septiembre, de aprobación definitiva del expediente de 8ª modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Ribera Baja.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Mediante Orden Foral nº 185/2009, de 7 de abril, se aprobó definitivamente la sexta modificación de las Normas Subsidiarias de Ribera Baja, referente al cambio de uso de un suelo destinado a zona verde por equipamiento deportivo en Rivabellosa.

Dicha modificación quedó condicionada a la tramitación de un expediente de modificación de la calificación de la superficie de 2.887 $m^2$ que se ubica en la R02/UE-1 de Rivabellosa, y que en las vigentes Normas está calificada como vial peatonal/acerado, la cual pasará a ser calificada como sistema local de espacios libres.

Segundo.- El Ayuntamiento de Ribera Baja, mediante escrito con fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava del día 22 de junio de 2009, remitió expediente de modificación de sus Normas Subsidiarias referente al ámbito al que se ha hecho mención en el punto anterior, para su aprobación definitiva.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- De conformidad con lo dispuesto en el art. 56 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, tienen la consideración de determinaciones de carácter pormenorizado, entre otras, la definición de los sistemas locales, por lo que la tramitación de las modificaciones que afecten a dichas determinaciones se efectuará conforme al procedimiento establecido para los planes de ordenación pormenorizada.

Dado que el cambio de calificación que plantea el Ayuntamiento supone un cambio encuadrable en la categoría de ordenación pormenorizada resulta correcto el procedimiento seguido.

Segundo.- Analizada la documentación aportada se observa que se han cumplido todos los trámites procedimentales exigidos en

espedientea jendaurrean egon den bitartean ez da alegaziorik aurkeztu.

Horregatik, neure esku ditudan ahalmenez baliatuta, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Erribera Beitiko udal planeamenduaren arau subsidiarioen 8. aldaketaren espedientea, udal horrek sustatu eta izapidetutakoa.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, beren interesen alde abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke (administrazioen kasuan, errekerimendua), foru agindu hau eman duen organoari. Horretarako, berriz, hilabete izango da, honako hau argitaratu edo honen berri eman eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko irailaren 23a.– Toki Administrazioaren Eta Lurralde Orekaren Saileko Diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

R02/UE1 EGIKARITZE UNITATEAREN FITXA

| EGIKARITZE UNITATEA | R02/UE1 |
|---|---|
| Unitatearen azalera | 9.966 m$^2$ |
| Azalera pribatua unitatean | 9.966 m$^2$ |

| BALDINTZA OROKORRAK | |
|---|---|
| Erabileraren intentsitatea | 10 etxebizitza |
| Ondoriozko azalera pribatua | 4.374 m$^2$ |
| Lagatako lur publikoa | Bide eta espazio libreak, forma planoak zehaztutakoak |
| Udalari esleitutakoa | Aprobetxamenduaren ehuneko 10 |

| FORMA BALDINTZAK | | |
|---|---|---|
| Eraikinen tipologia | Eraikinak lerroan, ORD-D ordenantza<br>Forma planoan zehaztutako lerrokadurak zainduko dira | |
| Altuera | Solairu kopurua | II |
| | Erlaitzera altuera | 6.50 m |
| | Azalera eraikia, gehienez | 2.880 m$^2$ |

| ERABILTZEKO BALDINTZAK |
|---|
| Dagoen eremuko (R02) berak |

| KUDEATZE BALDINTZAK | | |
|---|---|---|
| Jarduketa sistema | | Konpentsazioa |
| Eginkizunak betetzeko epea | Urbanizatzeko | 2 urte |
| | Baimena eskatzeko | 2 urte |
| Berriro lurzatikatzeko baldintzak | Kudeaketa planoan ageri diren lurzatiak gutxienekoak eta beharrezkoak dira | |

**ESPAZIO PUBLIKOA URBANIZATZEKO BALDINTZAK**

Planoetan ageri den bideak aldi bereko bide sekundarioaren (ABBS) ezaugarriak ditu; Bide horretan, gutxienez, zuhaitz bat landatuko da zortzi metrorik zortzi metrora.

(V/1) espazio librea parke publiko, lorategi edo zona berde gisa urbanizatuko da. Hartan zuhaitzak eta landareak landatuko dira.

Dena den, udalak, urbanizazio proiektua onartzean, haren azpian lurrazpiko aparkalekua eraikitzea erabaki dezake. Hala erabakiko balu, konpentsazio batzarrak lurrazaleko urbanizazioak eragiten dituen gastuei baino ez lieke aurre egingo. Lurrazpiko aparkaleku hori urbanizazio proiektua onartu eta gero egingo balitz, ordea, aldaketak eragindako gastuei udalak edo erakunde esleipendunak egingo lieke aurre.

la legislación vigente, sin que en el periodo de información pública se haya presentado alegación alguna.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de 8ª modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Ribera Baja, promovido y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero. Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 23 de septiembre de 2009.– El Diputado De Administración Local Y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

FICHA DE LA UNIDAD DE EJECUCIÓN R02/UE1

| UNIDAD DE EJECUCIÓN | R02/UE1 |
|---|---|
| Superficie total de la Unidad | 9.966 m$^2$ |
| Superficie privada incluida en la Unidad | 9.966 m$^2$ |

| CONDICIONES GENERALES | |
|---|---|
| Intensidad de uso | 10 viviendas |
| Superficie privada resultante | 4.374 m$^2$ |
| Cesiones de suelo público | Viario y espacios libres según plano de forma |
| Adjudicación al Ayuntamiento | 10 por ciento del aprovechamiento |

| CONDICIONES DE FORMA | | |
|---|---|---|
| Tipología edificatoria | Edificación en línea, ordenanza ORD-D<br>Se respetarán las alineaciones marcadas en el plano de forma | |
| Altura | Número de plantas | II |
| | Altura de cornisa | 6.50 m |
| Superficie máxima construida | | 2.880 m$^2$ |

| CONDICIONES DE USO |
|---|
| Las mismas que se establecen para el ámbito en que se sitúa (R02) |

| CONDICIONES DE GESTIÓN | | |
|---|---|---|
| Sistema de actuación | | Compensación |
| Plazo para el cumplimiento de los distintos deberes | Deber de urbanizar | 2 años |
| | Solicitud de licencia | 2 años |
| Condiciones de reparcelación | Las parcelas que figuran en el plano de gestión son mínimas y obligatorias. | |

**CONDICIONES DE URBANIZACIÓN DEL ESPACIO PÚBLICO**

El vial que figura en planos tendrá las características de un vial de coexistencia secundario (VCS); en él deberán plantarse al menos un árbol cada 8 m de longitud.

El espacio libre (V/1) se urbanizará como parque público/jardín/zona verde, disponiendo algunos árboles y elementos vegetales.

En todo caso, el Ayuntamiento podrá optar en el momento de aprobación del proyecto de urbanización, por establecer en ese espacio un aparcamiento subterráneo. En este caso la Junta de Compensación sólo tendrá que hacer frente al costo que supondría la urbanización en superficie. Lógicamente, si la implantación de este aparcamiento subterráneo fuese posterior a la aprobación del Proyecto de Urbanización, todo el costo de la modificación será por cuenta del Ayuntamiento o del concesionario.